



VITORIA-GASTEIZKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ

VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLA

Gradu Bikoitzak

- Ingeniaritza Mekanikoa + Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
- Ingeniaritza Mekanikoa + Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza + Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza

Graduak

- Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
- Ingeniaritza Mekanikoa
- Industria Kimikaren Ingeniaritza
- Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
- Automobilgintzaren Ingeniaritza (Duala)

EHU


Etorkizunean lanean.

MISIOA

Euskalduna eta eleanitza, hizkuntza propioan eta modu irigarrian ari da EHU, euskal gizartearen ongizatearekin **konprometitua, bikaintasunetik** maila goreneko irakaskuntza bermatzen dugu, berrikuntzaren eta aurrerapenaren sustatzaile eta **sortzaile**, gure sustraiei lotuta mundura **irekia**.

HISTORIA

1980an sortu zen Euskal Herriko Unibertsitatea, goi mailako irakaskuntza euskaraz ere eskainiz. Harrezkero, **400.000 pertsona** graduatu dira EHUn, euskal unibertsitate publikoan, jakintza alor guzietan.



UNIBERTSITATE LIDERRA

Ikasleak

46.000

Graduan

36.000

Graduondokoetan

10.000

Campusak

3

Egoitzak

8

Eraikinak

67

IKASKETA ESKAINTZA ZABALA

Graduak

108

Unibertsitate masterrak

100 baino +

Doktorego programak

67

ENPLEGAGARRITASUN HANDIA

Graduatuak lanean

10etik 9

Ikasketekin lotutako enplegu-tasa

% 87

UNIBERTSITATE ELEANITZA

Euskaraz ikasten ari den ikaslekoa

% 51

Ingeleseaz ematen diren kredituak

4.800

Frantsesez eta beste hizkuntza batzuetan eskaintzen diren kredituak

1.200

EHko IKERKETA ZENTRORIK HANDIENA

Shanghai ranking-a

400en artean

Ikerketa taldeak

250

Astean irakurtzen den tesi kopurua

11

NAZIOARTEKO UNIBERTSITATEA

Europako eta beste herrialde batzuetako ikasleak

1.700 inguru

Atzerriko unibertsitate batera doazen ikasleak

4tik 1

Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola

Etorkizunerako prestatzen

Mundua aldatzen doa, eta, guk, aldaketa horretara egokitzeko, ikasketa sistema berritzaile bat aplikatzen dugu, non praktikak enpresetan egiten diren eta irakasleak etengabe trebatzen diren. Horri esker, prestatzen ditugun ingeniari profesionalak lana arrakastaz egiteko gai dira gure gizartean, non, ekonomia globalizatua eta lan merkatuen mugikortasuna dela eta, prestakuntza teknikoa eta humanoa jaso duten eta beste herrialde, hizkuntza eta kultura batzuetan ongi moldatzen diren profesionalak behar-beharrezkoak izango diren.

Harreman zuzena eta etengabea dugu gure inguruko enpresa ehunarekin, arlo guztietan, baita industria 4.0n edo digitalean ere. Hala, urtero, 100 lan eskaintza inguru kudeatzen ditugu, eta gure ikasleen % 80k baino gehiagok praktikak egiten dituzte enpresetan.

Aitortza ugari bermatzen dute gure kudeaketaren kalitatea. Zilarrezko A - Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria jaso duen EAEko ingeniarietza eskola bakarra da gurea.



ESKOLA ZENBAKITAN

5+3

gradu gradu bikoitz

110

irakasle

2

master

+%80

gradudunek egiten dituzte praktikak enpresetan

281

mugikortasun plaza

38

laborategi guztiz hornituta



Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola
Nieves Cano, 12
01006 Vitoria-Gasteiz

945 013 205

secretaria.ei-vi@ehu.eus

www.ehu.eus/eu/web/vitoria-gasteizko-ingeniaritza-eskola



GURE AZPIEGITURAK

Irakaskuntzarako guneak:

- 5 ikasgela eta 17 mintegi
- 6 ordenagailu gela
- 38 laborategi

Ikasleek beren kabuz erabiltzeko guneak:

- Informatika gela
- Ikasteko gelak
- Lana taldean egiteko guneak
- IKD (Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamiko) espazio komunak

Beste gune batzuk:

- Ekitaldi aretoa
- Anfiteatroa
- Gradu aretoa
- Bideokonferentzia gela
- Kafetegia



**Eskola
hurbila eta
kalitatezkoa.**



MUGIKORTASUN PROGRAMAK

 **SICUE**
Espainiako
unibertsitateak


 **ERASMUS +**
Europako
unibertsitateak

 **Latinoamerika eta
Beste Norako Batzuk**

- Bigarren urtetik aurrera
- Lauhilekoa edo ikasturte osoa
- Mekanikako Titulu Bikoitza: Santiago de Txileko Unibertsitatea eta Federico Santa María Unibertsitate Teknikoa



[Hemen](#) aurkituko duzu
ikastegi honetako
mugikortasun-programen
informazio guztia.



IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzakoan ez beste gradu guztietan:

1. eta 2. mailako irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz.

Ingeniaritza Mekanikoa:

Nahitaezko irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz.

Automobilgintza:

Nahitaezko irakasgai guztiak euskaraz/gaztelaniaz edo gaztelaniaz/ingelesaz.

Titulazio guztiak

Ingelesazko eskaintza ikusteko, web orria kontsultatu


KANPOKO PRAKTIKAK

- Borondatezko praktikak gradu 3. eta 4. mailan
- Nahitaezko curriculum praktikak Automobilgintzako Ingeniaritzako Graduan.
- Eskolako irakasleen tutoretza
- Kudeaketa zerbitzua kanpoko praktikak egiteko

GRADU AMAIERAKO LANA

Kudeaketa zerbitzua, Gradu Amaierako Lana enpresa eta erakundeetan egiteko.

NON EMATEN DIRA GURE GRADUAK?



Bizi Arabako Campusa!



+7.000 ikasle



7 ikastegi



1 unibertsitate egoitza

Ostatu zerbitzua: ostatua aurkitzen lagunduko dizugu



2 biblioteka



Kultura, musika eta arte jarduerak



1 kiroldegi

Itunpeko kirol zentroak



Ikasi hizkuntzak
Hizkuntza egiaztagirak



Enplegu Gunea

Gradu Bikoitza

INGENIARITZA MEKANIKOA + INDUSTRIA ELEKTRONIKAREN ETA AUTOMATIKAREN INGENIARITZA



Jakintza adarra: Ingeniaritza eta Arkitektura

Ingeniaritza Mekanikoa + Industria eta Automatika Ingeniaritza Elektronikoa gradu bikoitzak mekanika, elektronika, kontrol eta informatikaren teknikak eta jakintzak lantzen ditu diziplinartekotasunez, ekoizpen prozesuen instrumentazioan eta automatizazioan hobekuntzak sartzen dituzten produktu eta sistema berriak garatzeko eta makina, zirkuitu elektroniko eta industria prozesuen kontrol sistema berriak diseinatzeko. Horregatik, azterlan horiek presentzia eta aplikazio handia dute gure herrialdeko sektore estrategiko gehienetan.

Ingeniaritza Mekanikoaren eta Industria Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatikaren gradu bikoitz honek, 288 ECTS kreditu dituenak, gaitasun eskainiko dizu Mekanika eta Elektronika Industrial eta Automatikoko Ingeniaritza Tekniko Industrialaren lanbiderako, eta beharrezko prestakuntza jarriko dizu zeure lan profesionala egiteko eta kualifikazio handiko zereginak egiteko, bi arlo horietan jakintza sakonak integratzea beharrezkoa denean, 4.0. Industrian gertatzen ari diren berrikuntzak erreferentziatzat hartuta, horietan behar baitira profesional horiek.

UPV/EHUK 250 enpresa baino gehiago darabiltza lankidetzan, non borondatezko praktikak egingo ahal dituzun, zeure prestakuntza integrala izan dadin.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu

egiturak, instalazio energetikoak, instalazio elektriko eta elektronikoak, eta fabrikazio eta automatizazio prozesuak eraiki, konpondu, instalatu eta muntatzeko balioko duten industria ingeniaritzako proiektuak idatzi eta garatzeko; hipotesiak eta soluzioak planteatzeko, industria ingeniaritzako ereduak –mekanika espezialitatekoak– erabiltzeko; soluzio teknikoaren gizarte eta ingurumen inpaktua baloratzeko; arazoak konpontzeko, ekimenez eta sormenez; eta diziplina anitzeko inguru eleaniztun batean lan egiteko.

Aukera profesionalak:

Arlo hauetan lan egin ahal izango duzu:

- Automobilgintza, aeronautika, energia, makina erreminta, kimika, ingurumena, industria produktuen fabrikazioa, energia berriztagarriak...
- Logistikako eta mantentzeko enpresak
- Robotika, adimen artifiziala
- Proiektuen ingeniaritzako enpresak
- Teknologia zentroak edo I+G+B departamentuak
- Merkaturatze, antolakuntza eta plangintza departamentuak
- Sarbidea ematen du irakaskuntzara eta administrazio publikoetara



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu bikoitz honi buruzko informazio zehatzagoa.

Pertsona sortzailea bazara, zenbakizko trebetasuna baduzu, mekanikarekiko eta elektronikarekiko jakinmina beti izan baduzu, robotikaren eta energia berriztagarrien mundua maite baduzu eta zure ikasturteei errentagarritasun handiena atera nahi badiezu, industria sektoreko aurrerapen teknologikoek eta berrikuntzak liluratzen bazaituzte, aukerarik onena duzu Ingeniaritza Mekanikoaren eta Industria Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatikaren Gradu bikoitz honetan.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu

1. lauhilekoa

- Aljebra
- Informatikaren Oinarriak
- Kalkulua (urtekoa)
- Adierazpen Grafikoa (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak (urtekoa)

2. lauhilekoa

- Estatistika Metodoak Ingeniaritzan
- Kalkulua (urtekoa)
- Adierazpen Grafikoa (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak (urtekoa)

BIGARREN MAILA 60 kreditu

1. lauhilekoa

- Materialen zientzia
- Industria Elektronikak
- Ingeniaritza Termikoa
- Teknologia Elektrikoaren Oinarriak (urtekoa)
- Mekanika Aplikatua (urtekoa)

2. lauhilekoa

- Automatismoak eta Kontrola
- Enpresen Administrazioa eta Ekonomia
- Fluidoaren Mekanika
- Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak
- Teknologia Elektrikoaren Oinarriak (urtekoa)
- Mekanika Aplikatua (urtekoa)

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu

1. lauhilekoa

- Adierazpen Grafikoan Sakontzea
- Makinen Zinematika eta Dinamika
- Materialen Erresistentzia eta Elastikotasuna
- Teknologia Mekanikoa

2. lauhilekoa

- Makinen Diseinua
- Industria Egiturak eta Eraikuntzak
- Instalazio eta Makina Hidraulikoak
- Instalazio eta Makina Termikoak

LAUGARREN MAILA 60 kreditu

1. lauhilekoa

- Elektronika Analogikoa
- Elektronika Digitala
- Industria Informatika
- Erregulazio Automatikoa
- Teknologia Elektronikoa

2. lauhilekoa

- Industria Automatizazioa
- Potentzia Elektronika
- Tresneria Elektronikoa
- Robotika
- Sistema Elektronikoko Digitalak

BOSGARREN MAILA 48 kreditu

1. lauhilekoa

- Proiektuen Kudeaketa
- Ekoizpenaren Antolakuntza
- Kudeaketa Integratuko Sistemak
- Ingurumen Teknologia

2. lauhilekoa

GRADU AMAIERAKO LANA (Ingeniaritza Mekanikoa)

GRADU AMAIERAKO LANA (Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzan)



Gratu Bikoitza

INGENIARITZA MEKANIKOA +

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA

Jakintza adarra: Ingeniaritza eta Arkitektura - Gizarte eta Lege Zientziak

Ingeniaritza Mekanikoko eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Bikoitza berria da estatu osoan. Enplegarritasunik handiena duten titulazioetako bi bateratzen ditu eta prestakuntza osoa eskaintzen du industria enpresen kudeaketarako, konbinatu egiten baititu industriarako ezagutza teknikoak eta enpresa kudeaketako gaitasunak.

Gratu bikoitz hau oso lotuta dago, orokorrean, enpresaren berrikuntzarekin eta, bereziki, industriarenarekin. Batetik, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduak baliabideak eta ezagutzak ematen ditu enpresa edo erakunde bat kudeatu, antolatu eta zuzentzeko, eta enpresa proiektu bat abian jartzeko. Bestetik, Ingeniaritza Mekanikoko Graduak gaitasuna ematen du, oro har, ingeniaritzako eta, zehazki, ingeniaritza mekanikoko proiektu teknikoak proposatu, landu, zuzendu, gauzatu eta ustiatzeko, industria ingeniari teknikoaren lanbiderako ematen dituen ahalmenen bidez.

UPV/EHUK lankide ditu 250 enpresa laguntzaile baino gehiago, eta horietan egin ahal izango dituzun praktikei esker, prestakuntza integrala lortuko duzu.

Gratu bikoitzaren klaseak Gasteizko Ingeniaritza Eskolan eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Gasteiz) izango dira.

Pertsona sortzailea bazara, zenbakiekin trebea, ulermen abstraktua eta arrazonamendu logikoa badituzu, eta enpresaren mundua eta errealtate ekonomiko eta soziala interesatzen bazaizkizu, Ingeniaritza Mekanikoko eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Bikoitza duzu aukerarik onena.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu

egiturak, ekipo mekanikoak, instalazio energetikoak eta instalazio elektriko eta elektronikoak eraiki, konpondu, instalatu eta muntatzeko industria ingeniaritzako proiektuak eta fabrikazio eta automatizazio prozesuetarako balioko dutenak idatzi eta garatzeko. Bertako nahiz atzerriko enpresa baten edozein arlo funtzional kudeatzeko, antolatzeko eta zuzentzeko, eta antolaketa zein kudeaketa arazoak konpontzeko. Taldean lan egiteko, erantzukizuna, errespetua, ekimena eta lidergoa erakutsiz, kultura, hizkuntza eta diziplina anitzeko ingurunean.

Irteera profesionalak:

Arlo hauetan lan egin ahal izango duzu:

- Logistikako eta mantenimenduko enpresak
- Proiektuen ingeniaritzako enpresak
- Teknologia guneak edo I+G+B sailak
- Merkaturatze, antolakuntza eta plangintza sailak
- Ekonomia eta finantza kudeaketa eta zerga arlokoa
- Estrategia zuzendaritza eta giza baliabideena
- Nazioarteko marketinaren eta merkataritza marketinaren kudeaketa
- Sarbidea ematen du master ikasketetara

Gainera, zure enpresa proiektua martxan jartzeko tresnak eta ezagutzak eskuratuko dituzu.

Azkenik, irakaskuntzan eta administrazio publikoetan ere aritu ahal izango zara.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu bikoitz honi buruzko informazio zehatzagoa.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 75 kreditu

1. lauhilekoa

- Enpresa Ekonomiarako Sarrera
- Kontabilitaterako Sarrera
- Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak
- Informatikaren Oinarriak
- Kalkulua (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak (urtekoa)

2. lauhilekoa

- Finantza Kontabilitatea
- Enpresa Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza
- Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak
- Kalkulua (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak (urtekoa)

BIGARREN MAILA 75 kreditu

1. lauhilekoa

- Zuzenbiderako Sarrera
- Estatistika eta Datuen Analisia
- Kostuen Kontabilitatea
- Aljebra
- Adierazpen Grafikoa (urtekoa)
- Mekanika Aplikatua (urtekoa)
- Teknologia Elektrokoaren Oinarriak (urtekoa)

2. lauhilekoa

- Historia Ekonomikoa
- Enpresari Aplikatutako Estatistika
- Goi Mailako Finantza Kontabilitatea
- Fluidoaren Mekanika
- Adierazpen Grafikoa (urtekoa)
- Mekanika Aplikatua (urtekoa)
- Teknologia Elektrokoaren Oinarriak (urtekoa)

HIRUGARREN MAILA 75 kreditu

1. lauhilekoa

- Finantza Eragiketen Matematika
- Mikroekonomia
- Merkataritza Zuzendaritzarako Sarrera
- Materialen Zientzia
- Industria Elektronikoa
- Ingeniaritza Termikoa
- Makinen Zinematika eta Dinamika

2. lauhilekoa

- Merkataritza Zuzendaritza: Politikak
- Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa
- Egitura Ekonomikoa
- Automatismoak eta Kontrola
- Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak

LAUGARREN MAILA 75 kreditu

1. lauhilekoa

- Kontabilitate Analisia
- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika
- Makroekonomia
- Ekonometria
- Materialen Erresistentzia eta Elastikotasuna
- Adierazpen Grafikoan Sakontzea
- Teknologia Mekanikoa

2. lauhilekoa

- Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza
- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Hazkundera eta Garapena
- Makinen Diseinua
- Industria Egiturak eta Eraikuntzak

BOSGARREN MAILA 72 kreditu

1. lauhilekoa

- Enpresa Zuzenbidea
- Enpresaren Zerga Araubidea
- Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak
- Proiektuen Kudeaketa
- Ekoizpenaren Antolakuntza
- Ingurumen Teknologia

2. lauhilekoa

- Instalazio eta Makina Termikoak
- Instalazio eta Makina Hidraulikoak
- Ingeniaritza Mekanikoko Gradu Amaierako Lana
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Amaierako Lana

Gradu Bikoitza

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA +

KUDEAKETAREN ETA INFORMAZIO SISTEMEN INFORMATIKAREN INGENIARITZA



Jakintza adarra: Ingeniaritza eta Arkitektura - Gizarte eta Lege Zientziak

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako gradu bikoitzak bateratu egiten ditu digitalizazioaren eta datu kopuru handien erabileraren egungo testuinguruan (4.0 industria) enpresen garapenerako oinarriak diren bi titulazio. Prestakuntza osoa eskaintzen du enpresen kudeaketa, administrazio eta zuzendaritzaren arloan, konbinatu egiten baititu enpresen kudeaketako gaitasunak eta informazioaren kudeaketarako tresna informatikoen ezagutza eta erabilera.

Gradu bikoitz honek aukera emango die tituludunei enpresen eta informazioaren gizartearen erronkei erantzuteko. Batetik, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduak baliabideak eta ezagutzak ematen ditu enpresa edo erakunde bat kudeatu, antolatu eta zuzentzeko, eta enpresa proiektu bat abian jartzeko. Bestetik, horren osagarri, Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Graduak gaitasunak ematen ditu erakundearen beharretara egokitutako soluzio informatikoak sortzeko, diseinatzeko, garatzeko eta hedatzeko, informazioa kudeatzeko, eta enpresa prozesuetan IKT soluzioak txertatu ahal izateko.

UPV/EHUK lankide ditu 250 enpresa laguntzaile baino gehiago, eta horietan egin ahal izango dituzun praktikei esker, prestakuntza integrala lortuko duzu.

Gradu bikoitzaren klaseak Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Gasteiz) eta Gasteizko Ingeniaritza Eskolan izango dira.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu

bertako nahiz atzerriko enpresa baten edozein arlo funtzional kudeatzeko, antolatzeko eta zuzentzeko, eta enpresa prozesuetan IKT soluzioak txertatzeko. Taldean lan egiteko, erantzukizuna, errespetua, ekimena eta lidergoa erakutsiz, kultura, hizkuntza eta diziplina anitzeko ingurunean. Sistema, zerbitzu eta aplikazio

informatikoak sortzeko, garatzeko eta mantentzeko, software ingeniaritzako metodoak erabilia; proiektuak planifikatzeko eta sinatzeko; hardwarea, softwarea eta sareak integratuta, sistema edo arkitektura informatiko zentralizatuak edo banatuak garatzeko; hardware eta software plataformak ebaluatzeko eta hautatzeko; eta horien erabilerraztasuna eta ergonomia diseinatzeko.

Irteera profesionalak:

Arlo hauetan lan egin ahal izango duzu:

- Merkaturatze, antolakuntza eta plangintza sailak
- Ekonomia eta finantza kudeaketa eta zerga arlokoa
- Estrategia zuzendaritza eta giza baliabideena
- Nazioarteko marketinaren eta merkataritza marketinaren kudeaketa
- Informazio sistemen diseinua, eraikuntza eta mantentzea sektore askotako erakunde eta enpresetan
- IKTen sektoreko enpresak
- Enpresa publiko eta pribatuaren informatika sailak
- Informatikako aholkularitza enpresak
- Zerbitzu informatikoen enpresak: aplikazioen eta produktu informatikoen garapena
- Bideo jokoen garapena
- 4.0 industria ekosistema
- Sarbidea ematen du irakaskuntzara eta administrazio publikoetara
- Sarbidea ematen du master ikasketetara

Gainera, zure enpresa proiektua martxan jartzeko tresnak eta ezagutzak eskuratuko dituzu.ere aritu ahal izango zara.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu bikoitz honi buruzko informazio zehatzagoa.

Enpresaren mundua eta errealitate ekonomiko eta soziala interesatzen bazaizkizu, ekintzailea bazara, ordenagailuak eta beren funtzionamendua gustuko badituzu, ingelesezko testu tekniko eta zientifiko errazak ulertzeko gai bazara, zenbakiekin trebea bazara, eta ulermen abstrakturako gaitasuna, arrazonamendu logikoa eta trebezia deduktiboa badituzu, zure profila guztiz egokia da Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzerako.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 72 kreditu

1. lauhilekoa

- Enpresa Ekonomiarako Sarrera
- Kontabilitaterako Sarrera
- Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak
- Analisi Matematikoa
- Konputagailuen Teknologiaren Oinarriak
- Oinarrizko Programazioa

2. lauhilekoa

- Finantza Kontabilitatea
- Enpresa Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza
- Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak
- Kalkulua
- Programazio Modularra eta Objektuetara Bideratutako Orientazioa
- Programazioaren Metodologia

BIGARREN MAILA 72 kreditu

1. lauhilekoa

- Zuzenbiderako Sarrera
- Estatistika eta Datuen Analisia
- Kostuen Kontabilitatea
- Sistema Digitalak Diseinatzeko Oinarriak
- Aljebra
- Ikerketa Operatiboa

2. lauhilekoa

- Historia Ekonomikoa
- Enpresari Aplikatutako Estatistika
- Goi Mailako Finantza Kontabilitatea
- Konputagailuen Egitura
- Matematika Diskretua
- Datu-baseak

HIRUGARREN MAILA 72 kreditu

1. lauhilekoa

- Finantza Eragiketen Matematika
- Mikroekonomia
- Merkataritza Zuzendaritzarako Sarrera
- Konputagailuen Arkitektura
- Lengoaiak, Konputazioa eta Sistema Adimendunak
- Datu-egiturak eta Algoritmoak

2. lauhilekoa

- Merkataritza Zuzendaritza: Politikak
- Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa
- Egitura Ekonomikoa
- Sistema Eragileen Oinarriak
- Software Ingeniaritza
- Enpresak Kudeatzeko Softwarea

LAUGARREN MAILA 72 kreditu

1. lauhilekoa

- Kontabilitate Analisia
- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika
- Makroekonomia
- Ekonometria
- Konputagailu Sareen Oinarriak
- Datu-baseen Diseinua

2. lauhilekoa

- Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza
- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Hazkundea eta Garapena
- Datu-baseen Kudeaketa
- Web Sistemak
- Proiektuen Kudeaketa
- Erabakiak Hartzeko Euskarri Sistemak

BOSGARREN MAILA 66 kreditu

1. lauhilekoa

- Enpresa Zuzenbidea
- Enpresaren Zerga Araubidea
- Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak
- Informazio Sistemen Analisia eta Diseinua
- Ekoizpenaren Antolakuntza
- Kudeaketa Integratuko Sistemak
- Informazio Sistemen Segurtasuna Kudeatzeko Sistemak

2. lauhilekoa

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Amaierako Lana
- Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Amaierako Lana



Gradua

INDUSTRIA ELEKTRONIKAREN ETA AUTOMATIKAREN INGENIARITZA

Jakintza adarra: Ingeniaritza eta Arkitektura

Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua titulu praktikoa bat da, aplikazioa eta presentzia duena gure herriko sektore estratetikoko gehienetan eta gure artean oso errotuta dauden arloetan, hala nola makina erremintan, automobilaren industrian, aeronautikan, robotikan eta mikroelektronikan. Era berean, aplikatu daitezke ere beste arlo batzuetan, esate baterako: medikuntzan, nekazaritzan, salgaiak banatzeko prozesuetan, trafikoa kudeatzeko sistemetan, energia ekoizpenean eta banaketan, etab.

Gradu hau amaitzerakoan, gai izango zara zirkuitu elektronikoak diseinatzeko, ekoizpen prozesuen tresneria eta automatizazioa hobetuko dituzten sistemak garatzeko, eta industria prozesuetako kontrol sistemak sortu eta analizatzeko.

Titulu honi esker, industria ingeniarietza teknikoan egingo duzu lan, industria elektronikaren espezialitatean, eta alor honetako azken aurrerapen teknologikoetan trebatuko zara.

Horrezaz gain, enpresetan egindako borondatezko praktiken bidez, UPV/EHUk zure prestakuntza osatzeko aukera eskaintzen dizu.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu

instalazio energetikoak, instalazio elektrikoak eta elektronikoak, eta fabrikazio eta automatizazio prozesuak eraiki, konpondu, instalatu eta muntatzeko balioko duten industria ingeniarietza proiektuak idatzi eta garatzeko; hipotesiak eta soluzioak planteatzeko, industria ingeniarietza ereduak –industria elektronika espezialitatekoak– erabili; soluzio teknikoaren gizarte eta ingurumen inpaktuak baloratzeko; arazoak konpontzeko, ekimenez eta sormenez; eta diziplina anitzeko inguru eleaniztun batean lan egiteko.

Irteera profesionalak:

Industria sektorean, enpresa aukera handia duzu:

- Automobilgintza, aeronautika, energia, makina erreminta, kimika, ingurumena, industria produktuen fabrikazioa, energia berriztagarriak...
- Robotika, adimen artifiziala.
- Proiektuen ingeniarietza.
- Teknologia zentroak edo I+G+B departamentuak.
- Merkaturatze, antolakuntza eta plangintza departamentuak.

Baita irakaskuntzan eta administrazio publikoen arloan ere.

Elektronikak jakin-mina sortu badizu beti, ezin bazara egon gailu eta zirkuitu elektronikoak desmuntatu eta berriro muntatu gabe, eta robotikaren, energia berriztagarrien, garraio elektrikoaren, komunikazioen, domotikaren edo industria sistema automatikoen zale amorratua bazara, Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Graduan duzu lekua.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Adierazpen Grafikoa (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak (urtekoa)
- Kalkulua (urtekoa)
- Aljebra
- Informatikaren Oinarriak

2. lauhilekoa

- Adierazpen Grafikoa (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak (urtekoa)
- Kalkulua (urtekoa)
- Estatistika Metodoak Ingeniaritzan

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 6 kreditu + nahitaezko 54 kreditu)

1. lauhilekoa

- Mekanika Aplikatua (urtekoa)
- Teknologia Elektroaren Oinarriak (urtekoa)
- Industria Elektronikak
- Ingeniaritza Termikoa
- Materialen Zientzia

2. lauhilekoa

- Mekanika Aplikatua (urtekoa)
- Teknologia Elektroaren Oinarriak (urtekoa)
- Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak
- Enpresen Administrazioa eta Ekonomia
- Jariakinen Mekanika

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Elektronika Analogikoa
- Elektronika Digitala
- Erregulazio Automatikoa
- Industria Informatika
- Teknologia Elektronikoa

2. lauhilekoa

- Industria Automatizazioa
- Potentzia Elektronika
- Robotika
- Sistema Elektronikoko Digitalak
- Tresneria Elektronikoa

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 24 kreditu + hautazko 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

- Ekoizpenaren Antolakuntza
- Ingurumen Teknologia
- Kudeaketa Integratuko Sistemak
- Proiektuen Kudeaketa

Hautazkoak

- English for Industrial Engineering
- Idatzizko Komunikazio Zientifiko-teknikoa Euskaraz
- Sistema Elektrokoen Diseinua
- Sistema Txertatuak
- Zibersegurtasun

2. lauhilekoa

Hautazkoak

- Ahozko Komunikazio Zientifiko-teknikoa Euskaraz
- Industria-hondakinen eta tresan elektriko eta elektronikoen hondakinen kudeaketa
- Industria Informatika Aurreratua
- Kontrolari aplikatutako adimen artifiziala

GRADU AMAIERAKO LANA

Bi ingeniartzako gradu 5 urtetan bakarrik egiteko aukera: Industria Elektronikak eta Automatika + Mekanika edo Industria Elektronikak eta Automatika + Industria Kimika.

Prestakuntza beste industri arloetara zabaldu nahi duten ikasleentzat. Industria adarreko edozein titulutako lehen hiru mailak gauditu ondoren, ikasleek batera egin ditzakete 4. maila eta titulu berriaren 3. mailako 30 ECTS. Horrela, bosgarren urtean, bigarren titulua osatzeko gelditzen zaizkien kredituetan matrikulatuko dira.



Gradua INGENIERITZA MEKANIKOA

Jakintza adarra: Ingeniaritza eta Arkitektura

Ingeniaritza Mekanikoaren xede nagusia da makinak, motorrak, mekanismoak eta sistema mekanikoak diseinatzea; beraz, lotura handia du industria alorreko berrikuntzarekin. Proiektu teknikoak planteatu, landu, zuzendu, exekutatu eta ustiatzear arduratzen da industria ingeniaritzaren arloan, oro har, eta ingeniaritza mekanikoarenean, bereziki.

Ingeniaritza Mekanikoko Graduak gaitasuna emango dizu industria ingeniaritza teknikoan aritzeko, mekanikako espezialitatean. Izan ere, espezialitate hori arduratzen da makina eta gailu mekanikoak, industria egiturak eta instalazioak, diseinatu, aztertu, eraiki, instalatu eta funtzionamenduan jartzeaz, hala nola jasotze eta garraio makinak, makina erreminta, energia instalazioak, hozte instalazioak, etab. Gainera, gaitasuna emango dizu ere ekoizpen, operazio eta mantentze-lanak antolatu eta zuzentzeko.

UPV/EHU 250 enpresarekin baino gehiagorekin ari da lankidetzan, zure prestakuntza erabatekoa izan dadin lagunduko dizuten borondatezko praktikak egiteko.

Halaber, aukera dago titulazio bikoitz bat lortzeko Txileko unibertsitate hauekin: Universidad Técnica Federico Santa María eta Universidad Santiago de Chile (USACH).

Titulazio honek gaitasuna emango dizu

egiturak, ekipo mekanikoak, instalazio energetikoak, instalazio elektriko eta elektronikoak, eta fabrikazio eta automatizazio prozesuak eraiki, konpondu, instalatu eta muntatzeko balioko duten industria ingeniaritzako proiektuak idatzi eta garatzeko; hipotesiak eta soluzioak planteatzeko, industria ingeniaritzako ereduak – mekanika espezialitatekoak – erabiltzeko; soluzio teknikoen gizarte eta ingurumen inpaktua baloratzeko; arazoak konpontzeko, ekimenez eta sormenez; eta diziplina anitzeko inguru eleaniztun batean lan egiteko.

Irteera profesionalak:

Lana egiteko aukera izango duzu arlo hauetan:

- Automobilgintza, aeronautika, energia, makina erreminta, kimika, ingurumena, industria produktuen fabrikazioa, energia berriztagarriak...
- Logistika eta mantenimenduko enpresak.
- Proiektuen ingeniaritzako enpresak.
- Teknologia zentroak edo I+G+B departamentuak
- Merkaturatze, antolakuntza eta plangintza departamentuak.

Baita irakaskuntzan eta administrazio publikoen arloan ere.

Pertsona sortzailea eta zenbakiekin trebea bazara, ulermen abstraktua, arrazonomendu logikoa eta trebezia deduktiboa badituzu eta matematika, fisika, kimika eta adierazpen grafikoa bezalako oinarritzko gaietarako erraztasuna baduzu, Ingeniaritza Mekanikoko Graduan dago zure lekua.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Adierazpen Grafikoa (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak (urtekoa)
- Kalkulua (urtekoa)
- Aljebra
- Informatikaren Oinarriak

2. lauhilekoa

- Adierazpen Grafikoa (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak (urtekoa)
- Kalkulua (urtekoa)
- Estatistika Metodoak Ingeniaritzan

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 6 kreditu + nahitaezko 54 kreditu)

1. lauhilekoa

- Mekanika Aplikatua (urtekoa)
- Teknologia Elektriakoaren Oinarriak (urtekoa)
- Industria Elektronikak
- Ingeniaritza Termikoa
- Materialen Zientzia

2. lauhilekoa

- Mekanika Aplikatua (urtekoa)
- Teknologia Elektriakoaren Oinarriak (urtekoa)
- Automatismoak eta Kontrola
- Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak
- Enpresen Administrazioa eta Ekonomia
- Jariakinen Mekanika

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Adierazpen Grafikoan Sakontzea
- Makinen Zinematika eta Dinamika
- Materialen Erresistentzia eta Elastikotasuna
- Teknologia Mekanikoa

2. lauhilekoa

- Industria Egiturak eta Eraikuntzak (*)
- Instalazio eta Makina Hidraulikoak
- Instalazio eta Makina Termikoak
- Makinen Diseinua (*)

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 24 kreditu + hautazko 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

- Ekoizpenaren Antolakuntza
- Ingurumen Teknologia
- Kudeaketa Integratuko Sistemak
- Proiektuen Kudeaketa

Hautazkoak

- English for Industrial Engineering
- Komunikazio Zientifiko-teknikoa Euskaraz
- Sistema Elektrikoen Diseinua

2. lauhilekoa

Hautazkoak

- Ahozko Komunikazio Zientifiko-teknikoa Euskaraz
- Big data
- Interes industrialeko materialak eta horien jasagarritasuna
- Ordenagailuz Lagundutako Egituren Analisia
- Prozesuen eta produktuen diseinu jasagarriko tresnak
- Sistema Pneumatiko eta Oleohidraulikoak

GRADU AMAIERAKO LANA

Bi ingeniartzako gradu 5 urtetan bakarrik egiteko aukera: Mekanika + Industria Elektronikak eta Automatika edo Mekanika + Industria Kimika.

Prestakuntza beste industri arloetara zabaldu nahi duten ikasleentzat. Industria adarreko edozein titulutako lehen hiru mailak gauditu ondoren, ikasleek batera egin ditzakete 4. maila eta titulu berriaren 3. mailako 30 ECTS. Horrela, bosgarren urtean, bigarren titulua osatzeko gelditzen zaizkien kredituetan matrikulatuko dira.



Gradua INDUSTRIA KIMIKAREN INGENIARITZA

Jakintza adarra: Ingeniaritza eta Arkitektura

Industria kimika prozesuen garapena hazkunde ekonomikoan gehien eragin duen faktoreetako bat izan da. Herrialde aurreratu ororen lehen mailako produkzioaren oinarrietako bat da.

Industria kimika kimikaren adar bat da, gure eguneroko bizitzan erabilgarriak diren materialak, teknologiak eta produktuak sortzeko xedea duena. Haren egitekoa da, hain zuzen, aldaketa fisikoak, kimikoak eta biokimikoak sortzen dituzten industria prozesuak aztertzea, sintetizatzea, garatzea, diseinatzea, lantzea eta optimizatzea.

Industria Kimikaren Ingeniaritzako Graduan, gaitasuna eskuratuko duzu instalazioak eta ekipoak proiektatu, eraiki eta martxan jartzeko, industriaren arloan, oro har, eta industria kimikoan, bereziki.

Horrez gainera, zure prestakuntza osatzeko, lan esperientzia jasoko duzu enpresetan egindako borondatezko praktiken bidez.

Pertsona metodikoa eta zenbakiekin trebea bazara, ulermen abstraktua, arrazonamendu logikoa eta trebezia deduktiboa badituzu eta matematika, fisika eta kimika bezalako gaietan oinarritzeko ezagutzak badituzu, Industria Kimikaren Ingeniaritzako Graduak liluratu egingo zaitu.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu

egiturak, ekipo mekanikoak, instalazio energetikoak, instalazio elektriko eta elektronikoak, industria instalazioak eta plantak, eta fabrikazio eta automatizazio prozesuak eraiki, konpondu, instalatu eta muntatzeko balioko duten industria ingeniaritzako proiektuak idatzi eta garatzeko; soluzio teknikoen gizarte eta ingurumen inpaktua baloratzeko; arazoak konpontzeko, ekimenez eta sormenez; eta, diziplina anitzeko inguru eleaniztun batean lan egiteko.

Irteera profesionalak:

Arlo hauetan lan egiteko aukera izango duzu:

- Automobilgintza, aeronautika, energia, makina erreminta, kimika, ingurumena, industria produktuen fabrikazioa, energia berriztagarriak...
- Industria kimikoak, farmazeutikoak, paperarenak, petrokimikoak eta nekazaritzako elikagaiak.
- Proiektuen ingeniaritzako enpresak.
- Teknologia zentroak edo I+G+B departamentuak
- Merkaturatze, antolakuntza eta plangintza departamentuak.

Baita irakaskuntzan eta administrazio publikoen arloan ere.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Adierazpen Grafikoa (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak (urtekoa)
- Kalkulua (urtekoa)
- Aljebra
- Informatikaren Oinarriak

2. lauhilekoa

- Adierazpen Grafikoa (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak (urtekoa)
- Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak (urtekoa)
- Kalkulua (urtekoa)
- Estatistika Metodoak Ingeniaritzan

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 6 kreditu + nahitaezko 54 kreditu)

1. lauhilekoa

- Mekanika Aplikatua (urtekoa)
- Teknologia Elektroaren Oinarriak (urtekoa)
- Industria Elektronikak
- Ingeniaritza Termikoa
- Materialen Zientzia

2. lauhilekoa

- Mekanika Aplikatua (urtekoa)
- Teknologia Elektroaren Oinarriak (urtekoa)
- Automatismoak eta Kontrola
- Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak
- Enpresen Administrazioa eta Ekonomia
- Jariakinen Mekanika

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Banakako Eragiketak (urtekoa)
- Erreakzio Kimikoaren Ingeniaritza
- Ingeniaritza Kimikoko Esperimentazioa I
- Kimika Analitikoa
- Kimika Fisikoa

2. lauhilekoa

- Banakako Eragiketak (urtekoa)
- Industria Kimika
- Ingeniaritza Kimikoko Esperimentazioa II
- Prozesu Kimikoen Kontrola
- Prozesu Kimikoen Simulazioa eta Optimizazioa

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 24 kreditu + hautazko 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

- Ekoizpenaren Antolakuntza
- Ingurumen Teknologia
- Kudeaketa Osorako Sistemak
- Proiektuen Kudeaketa

Hautazkoak

- English for Industrial Engineering
- Idatzizko Komunikazio Zientifiko-teknikoa Euskaraz
- Sistema Elektrokoen Diseinua
- Zibersegurtasun

2. lauhilekoa

Hautazkoak

- Ahozko Komunikazio Zientifiko-teknikoa Euskaraz
- Big data
- Industria-hondakinen eta tresan elektroko eta elektrokoen hondakinen kudeaketa
- Interes industrialeko materialak eta horien jasagarritasuna
- Prozesuen eta produktuen diseinu jasagarriko tresnak

GRADU AMAIERAKO LANA

Bi ingeniartzako gradu 5 urtetan bakarrik egiteko aukera: Industria Kimika + Industria Elektronikak eta Automatika edo Industria Kimika + Mekanika

Prestakuntza beste industri arloetara zabaldu nahi duten ikasleentzat. Industria adarreko edozein titulutako lehen hiru mailak gauditu ondoren, ikasleek batera egin ditzakete 4. maila eta titulu berriaren 3. mailako 30 ECTS. Horrela, bosgarren urtean, bigarren titulua osatzeko gelditzen zaizkien kredituetan matrikulatuko dira.

Gradua

KUDEAKETAREN ETA INFORMAZIO SISTEMEN INFORMATIKAREN INGENIARITZA



Jakintza adarra: Ingeniaritza eta Arkitektura

Gaur egun, informazio sistemen ezarpena eta erabilera egokia dira enpresen eta erakundeen arrakastaren oinarriak, neurri handi batean. Erakundeek tresna informatikoak erabiltzen dituzte beren eguneroko lanean, eta informazioa sortzen eta antolatzen duten profesionalak behar izaten dituzte. Hori dela eta, titulu honek aplikazio praktikoa du lan sektore eta arlo guztietan.

Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Graduak erakundeen beharretara egokitutako soluzio informatikoak sortzeko, diseinatzeko, garatzeko eta hedatzeko prestatuko zaitu, baita proiektuak zehaztu, planifikatu, zuzendu eta kudeatzeko ere. Kudeaketaren eta informazio sistemen premia informatikoak zehazten ikasiko duzu, IKT soluzioak enpresa prozesuetan txertatzeari begira, segurtasun alderdiak kontuan hartuta eta indarrean dagoen legedia beteta.

Ia 250 enpresa laguntzaile ditugu, non borondatezko praktikak egin ahal izango dituzun, lan merkatuarekin lehengo harremana izateko.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu

sistema, zerbitzu eta aplikazio informatikoak sortzeko, garatzeko eta mantentzeko, softwarearen ingeniaritza metodoak erabiltzeko; proiektuak planifikatzeko eta sinatzeko; hardware, software eta sareak integratuta, sistema edo arkitektura informatiko zentralizatuak edo banatuak garatzeko; hardware eta software plataformak ebaluatzeko eta hautatzeko; eta, sistema, zerbitzu eta aplikazio informatikoen sarbidea, ergonomia, erabilgarritasuna eta segurtasuna diseinatzeko.

Irteera profesionalak:

- Informazio sistemak diseinatzea, eraikitzea eta mantentzea, sektore askotako erakunde eta enpresetan.
- IKTen sektoreko enpresak.
- Enpresa publiko eta pribatuen informatika departamentuak.
- Informatikako aholku enpresak.
- Zerbitzu informatikoen enpresak: aplikazio eta produktu informatikoak garatzea
- Bideojokoak garatzea.

Zure adimena kode bitarrean egituratuta badago, ordenagailuak zure gustukoak badira eta haien funtzionamendua ulertzen baduzu, ingelesezko testu tekniko eta zientifiko errazak ulertzen badituzu, zenbakiekin trebea bazara, eta ulermen abstraktua, arrazonamendu logikoa eta trebezia deduktiboa badituzu, zure profila guztiz egokia da Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradurako.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 42 kreditu + nahitaezko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Aljebra
- Analisi Matematikoa
- Konputagailuen Teknologiaren Oinarriak
- Oinarrizko Programazioa
- Sistema Digitalak Diseinatzeko Oinarriak

2. lauhilekoa

- Kalkulua
- Konputagailuen Egitura
- Matematika Diskretua
- Programazio Modularra eta Objektu Orientazioa
- Programazioaren Metodologia

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 18 kreditu + nahitaezko 42 kreditu)

1. lauhilekoa

- Datu-egiturak eta Algoritmoak
- Ikerketa Operatiboa
- Konputagailu Sareen Oinarriak
- Konputagailuen Arkitektura
- Lengoaiak, Konputazioa eta Sistema Adimendunak

2. lauhilekoa

- Datu Baseak
- Enpresen Administrazioa eta Ekonomia
- Estatistika Metodoak Ingeniaritzan
- Sistema Eragileen Oinarriak
- Softwarearen Ingeniaritza

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Datu-baseen Diseinua
- Ekoizpenaren Antolakuntza
- Informazio Sistemen Analisia eta Diseinua
- Informazio Sistemen Segurtasuna Kudeatzeko Sistemak
- Kudeaketa Integratuko Sistemak

2. lauhilekoa

- Datu-baseen Kudeaketa
- Enpresak Kudeatzeko Softwarea
- Erabakiak Hartzeko Laguntza Sistemak
- Proiektuen Kudeaketa.
- Web Sistemak

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (hautazko 48 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

Hautazkoak

- Automaten Programazioa
- Idatzizko Komunikazio Zientifiko-teknikoa Euskaraz
- English for Industrial Engineering
- Sistema Elektrikoen Diseinua
- Sistema Txertatuak
- Zibersegurtasun

2. lauhilekoa

Hautazkoak

- Ahozko Komunikazio Zientifiko-teknikoa Euskaraz
- Big data
- Industria-hondakinen eta tresan elektriko eta elektronikoen hondakinen kudeaketa
- Industria Informatika Aurreratua
- Kontrolari aplikatutako adimen artifiziala
- Prozesuen eta produktuen diseinu jasangarrirako tresnak
- Web aplikazioen garapen aurreratua

GRADU AMAIERAKO LANA



Gradu Duala AUTOMOBILGINTZAREN INGENIARITZA

Jakintza adarra: Ingeniaritza eta Arkitektura

Automobilaren sektorea estrategikoa da gure inguruan, eta garrantzitsuenetakoa bat, mundu osoan. Erronka asko eta zirrargarriak ditu: 3Dn inprimatutako autoak, auto elektrikoak, auto autonomoak... Bide horretan, automobilgintzaren ingeniartzaren profesionalak parte hartze aktiboa izaten dute.

Automobilgintzaren Ingeniaritzako Graduak beharrezkoa den prestakuntza emango dizu instalazioak eta ekipak proiektatu, kalkulatu, diseinatu, analizatu, eraiki, martxan jarri eta haiekin jarduteko gai izan zaitezenean, industriaren arloan, oro har, eta, automobilgintzako industrian, bereziki. Diziplina anitzeko ingurunean proiektuak gidatzeko eta zuzentzeko gai izango zara, baita enpresak antolatze eta planifikatzeko ere.

Gradu honek lan merkatuaren eskaerei erantzun behar die; hortaz, ikasketa plana konfiguratzean kontuan hartu dira sektoreko enpresak. Hala, graduan, enpresetan egonaldiak egiteko prestakuntza dualeko 42 kreditu izango dituzu, zure prestakuntza pertsonalizatzeari begira.

Auto eta motorren zale amorratua bazara, ekimen, sormen eta arrazonomendu kritikorako gaitasunak, eta erabakiak hartzeko eta lider izateko dohainak badituzu, eta matematika eta fisikako oinarritzko ezagutzak badituzu, Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua titulu egokia da zuretzat.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu

industria prozesuen kontrolerik hasita fabrikazio teknologietara, ibilgailuen fabrikaziorako industria prozesuak diseinatzeko; arazoak konpontzeko, ekimenez, sormenez eta arrazonomendu kritikoz; tresna konputazionala oinarritutako ezagutzak erabiltzeko; eta, egiturak, ekipo mekanikoak, instalazio energetikoak, elektrikoak eta elektronikoak, industria plantak, eta fabrikazio eta automatizazio prozesuak diseinatzeko, fabrikatzeko, instalatzeko, muntatzeko edo ustiatzeko proiektuak garatzeko.

Irteera profesionalak:

Diziplina anitzeko ingurunean, automobilgintzaren barruan, eta askotariko industria ingurunean, batez ere:

- Antolakuntzan
- Fabrikazioan
- Mantentze-lanetan
- Kalitate bermean
- Bulego teknikoetan
- Produktzioan
- Langileen kudeaketan
- Taldeen zuzendaritzan

Baita teknologia berriei lotutako arloetan eta Industria 4.0ri lotutako gaitetan ere.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 54 kreditu + nahitaezko 6 kreditu)

1. lauhilekoa

- Aljebra
- Komunikazio eta Gizarte Gaitasunak eta Ikerkuntza-Erremintak Ingeniaritzan
- Informatikaren Oinarriak
- Ingeniaritza Grafikoa Automobilgintzan
- Kalkulua

2. lauhilekoa

- Automobilgintzako Metodo Estatistikoak
- Automobilgintzarako Materialak
- Fluidoaren Mekanika
- Kalkulu aurreratua eta Zenbakizko Analisia
- Mekanikaren Oinarriak

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 6 kreditu + nahitaezko 54 kreditu)

1. lauhilekoa

- Automobilgintzarako Elektronika
- Egituren kalkulua eta Diseinua Automobilgintzan
- Ibilgailuen Ingeniaritza
- Termodinamika eta Termoteknika
- Zirkuitu Elektrikoen Analisia

2. lauhilekoa

- Barne Errekuntzako Motorrak
- Ekonomia eta Enpresen Administrazioa
- Elementu Finituen bidezko Simulazioa eta Analisia Automobilgintzan
- Ibilgailuen Sistemen Kontrola eta Gidatze Laguntza Sistemak
- Makina eta Trakzio Elektrikoak

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak 42 + hautazkoak 18)

1. lauhilekoa

- Aerodinamika
- Energia Elektrikoaren Metaketa eta Integrazioa Automobil-Sistemetan
- Fabrikazio-Prozesuak Automobilgintzan
- Ibilgailu Elektrikoak eta Hibridoak
- Kanpoko Praktiak 1

2. lauhilekoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Ekoizpena Automobilgintzan
- Ibilgailuen Ingeniaritzarako Instrumentazioa
- Kanpoko Praktiak 2

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 6 kreditu + hautazko 18 kreditu + Praktiketako 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

- Kanpoko Praktiak 3

Hautazkoak

- Automatizazio Aurreratua Automobilaren Fabrikazioan
- Diseinu-Erremintak
- English for Industrial Engineering
- Ibilgailu adimendunarentzako nabigazio-sistemak
- Idatzizko Komunikazio Zientifiko-teknikoa Euskaraz
- Ikerkuntza-Metodologiak Automobilgintzan
- Robotika Aurreratua
- Segurtasun Industrialak
- Trafiko-Istripuen Peritazioa

2. lauhilekoa

- Kalitatea eta Logistika Automobilgintzan
- Kanpoko Praktiak 4

Hautazkoak

- Ahozko Komunikazio Zientifiko-teknikoa Euskaraz

GRADU AMAIERAKO LANA

Eta gradua eta gero, zer?

GRADU IKASKETAK

UNIBERTSITATE
MASTERRA
108 titulu

ETENGABEKO
PRESTAKUNTZAKO
MASTERRA
35 titulu

DOKTOREGOA
67 programa



Gradua bukatzean, aukera berriak aletu ahal izango dituzu. EHUn, bi master mota eskaintzen ditugu. Biak dira espezializatzeko bide bikainak, baina ezaugarri eta helburu desberdinak dituzte.

UNIBERTSITATE MASTERRAK

- Estatuan onartutako titulua, atzerrian homologatu daitekeena.
- Iraupena: 1 eta 2 urte bitartekoa (60, 90 edo 120 ECTS kreditu).
- Hainbat sektoreren **beharretara** bideratua.
- **Ezin hobe...**
 - Doktorego-ikasketak eta tesia egin nahi badituzu.
 - Araututako lanbideetan jardun ahal izateko, hala nola, irakaskuntzan, abokatutzan edota osasun psikologian.
 - Prestakuntza aurreratua eta espezializatua lortzeko.
 - Zure enplegarritasuna hobetzeko.

ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO MASTERRAK

- **EHUk emandako berezko titulua.**
- Iraupena: 1 eta 2 urte bitartekoa (60, 90 edo 120 ECTS kreditu). **Garapen profesionalera** eta espezializaziora bideratua.
- **Ezin hobe...**
 - Lanean bazabiltza edo zure ibilbide profesionala **birbideratzeko** gogoz bazaude.
 - Sektore desberdinen **beharretara** bideratutako formazioa bilatzen ari bazara.
 - **Malgutasuna** behar baduzu.
 - Zure enplegarritasuna hobetzeko.
 - Ez baduzu doktoregoa egiteko asmorik. Master hauek ez dute sarbiderik ematen.

Sartu eskaintzan:

